



## **S.BEZEROEKIN ERLAZIOA**

Beste aldeen kanalen bidez, hau izango da bezeroekiko tratua:

- Bezeroa gure dendan sartzen denean, langileetako bat berarentzat bakarrik egongo da, hau da, bezero bakoitzarentzako zerbitzu pertsonal bat izango dugu, eta gero galderak egingo dizkiegu jakiteko zer estilok gomendatu diezaiekegu beren gorputzerako egokia den arropa.
- Telefono bidezko tratua zuzena izango da, hau da, bezeroari galdetuko zaio zer zerbitzu mota nahi duen, eta hitzordua emango zaio ordu bat, eguna... zehaztuz.
- Bezeroa zuzenean dendara etortzen denean, gutako batek erantzungo die eta hitzordua emango diegu eguna, ordua eta obar zehaztuz.
- Instagram bat izango dugu, gure instagramean argazki desberdinak igoko ditugu. Jendeak gure produktuak ikus ditzan eta gure bezeroen aurretik eta ondoren ikus ditzaten, ikusteko zer nolako aldaketak egiten diegu jendeari eta beraiek ere animatzeko bere irudi-aldaketa egiten.
- Gmail bat izango dugu, bezeroa gurekin kontaktuan jartzeko. Baita ere, erabiliko dugu gure bazkideei propaganda bidaltzeko, deskontuak adierazteko, berriak adierazteko etab
- Facebook bat izango dugu, bazkide asko Instagramik ez dutelako eta gure argazkiak ikusteko aukera ere izan dezatela.

Bezeroek pertsona formalak eta errespetuzkoak ikusiko gaituzte, beren lanaz pertsonalki arduratzen direnak. Bezeroek pertsona simple, atsegin eta leial gisa deskribatuko gaituzte eta bezeroek beren lana serio hartu eta lagundu nahi duten pertsonatzat hartzea gustatuko litzaiguke.